



# EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA INFORMAZIO OROKORRA ETA LABURPENA

## ZER DA?

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana **berdintasunaren arloan** EAEko botere publikoen jarduera bideratuko duen **IBILBIDE-ORRIA** da.

VII. Planean zehazten da Eusko Jaurlaritzak eta bere sailek, foru-aldundiek eta udalek esku-hartzearekin zer helburu orokor bete behar dituzten, elkarrekin eta koordinatuta, Berdintasunerako Legeak eskatutako jarduera-programen eta plangintzen bitartez.

## ZER HELBURU DU?

Prozesuan aurrera egitea, **emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna** lortzen laguntzeko, bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaren eremu guztietan.

## NORK EGITEN DU?

**Emakunde** arduratzen da plana egiteaz, haren aplikazioa bultzatzeaz eta emaitzak ebaluatzeaz. Horretarako, 2017an zehar, berdintasunaren arloan espezializatuta dauden eragile sozialek parte hartu dute, eta adostasun batera iritsi dira.

## NOIZ ETA NON APLIKATZEN DA?

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana **2018an jarriko da indarrean**, eta Euskal Autonomia Erkidego osoan aplikatuko da.

## ZERGATIK GARATZEN DA?

**Berdintasunerako 4/2005 Legeak** xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzak plan berri bat onartu behar du legegintzaldi bakoitzean. 4 urteko indarraldia du.



## NOLA ANTOLATZEN DA?

Planak **4 jarduera-esparru** ditu, ekintzak noruntz bidaratu behar diren zehazteko.

- ▶ **Gobernu ona** euskal herri-administrazioetako antolakuntzan eta funtzionamenduan berdintasuna txertatzeko.
- ▶ **Emakumeen ahalduntzea**, emakumeak eta neskak maila pertsonalean eta kolektiboan, zein sozialean eta politikoan ahaldundu daitezen laguntzeko.
- ▶ **Ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea eskubideak bermatzeko** eta gizarte-eredu jasangarriagoa bultzatzeko.
- ▶ **Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak**, prebentzioa landuz eta bizirik dirauten biktimei arreta integrala emanez guztiz indarberritu arte.

## ZEINTZUK DIRA GOBERNU ONA SUSTATZEKO HELBURUAK?

<b>KONPROMISO POLITIKOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ BG1. Berdintasunaren gaiari buruzko berariazko araudia onartzea eta garatzea.</li> <li>▶ BG2. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea.</li> <li>▶ BG3. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.</li> <li>▶ BG4. Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta indartzea.</li> </ul>
<b>BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ BG5. Erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere.</li> </ul>
<b>GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ BG6. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.</li> <li>▶ BG7. Enplegu publikora sartu eta bertan mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan berdintasunarekin lotutako edukiak txertatzea.</li> <li>▶ BG8. Berdintasuna txertatzea komunikazioan.</li> <li>▶ BG9. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.</li> <li>▶ BG10. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.</li> <li>▶ BG11. Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako planetan.</li> <li>▶ BG12. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.</li> </ul>
<b>KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ BG13. Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea.</li> </ul>
<b>PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ BG14. Emakumeek eta gizonak zuzendaritza-organo edota pluripertsonaletan ordezkartza orekatua izatea bermatzea.</li> <li>▶ BG15. Kontsultarako eta parte hartzeko guneetan genero-ikuspegia sartzea.</li> </ul>



## ZEINTZUK DIRA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA SUSTATZEKO HELBURUAK?

<b>EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA.</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>▶ 1.1. Giza garapen jasangarrirako emakumeek eta feminismoak duten zereginaren onarpena sustatzea.</li><li>▶ 1.2. Emakumeen genero-kontzientzia, autoestimua eta autonomia garatzeko laguntza ematea.</li><li>▶ 1.3. Autozainketa eta osasuna sustatzea adin guztietako emakumeengan.</li><li>▶ 1.4. Baliabideak hobetzea, halako moldez non emakume guztien askotariko egoerek, esperientziek eta premiek beren aldaketan eragin dezaten, bereziki desberdinkeria handienak dituzten baliabide horietan.</li></ul>
<b>EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA.</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>▶ 2.1. Mugimendu sozialetatik eta herri-mugimenduetatik abiatuta berdintasuna eta emakumeek horietan duten parte-hartzea sustatzea.</li><li>▶ 2.2 Emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan.</li><li>▶ 2.3. Erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan emakumeen presentzia eta eragina handitzea.</li></ul>

## ZEINTZUK DIRA EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAMENDUAREN ERALDATZEA SUSTATZEKO HELBURUAK?

<b>BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA ONARTZEA.</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>▶ 3.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gizarte-balioa dela onartzeko laguntza ematea.</li><li>▶ 3.2. Herritartasun-eskubideak erabiltzea bultzatzea, hezkidetzaren bidez.</li><li>▶ 3.3. Antolaketaren eta enpresaren kultura berdintasunaren alde kokatzea.</li></ul>
<b>EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA.</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>▶ 4.1. Lan gehiago eta hobeak sortzea.</li><li>▶ 4.2. Pobreziaren feminizazioa murriztea.</li></ul>
<b>ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA.</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>▶ 5.1. Zainketa bizitzaren jasangarritasunerako ezinbesteko baldintza dela sozialki onartzea.</li><li>▶ 5.2. Ordaindu gabeko zainketa-lanak ikusaraztea eta horien balioa aitortzea.</li><li>▶ 5.3. Zainketen antolakuntza sozial berri bat babestea, horien gaineko ardurak birbanatzeko.</li></ul>



## ZEINTZUK DIRA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK SUSTAZEKO HELBURUAK?

<b>SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA.</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>▶ 6.1. Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea.</li><li>▶ 6.2. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.</li><li>▶ 6.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta finkatzea.</li></ul>
<b>KALTEA HAUTEMATEA, ARRETA EMATEA ETA KONPONTZEA.</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>▶ 7.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren antzemate goiztiarra handitzea.</li><li>▶ 7.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala bermatzea, ahalduntzearen ikuspegitik, esku-hartze horretan nazioarteko estandarrekin bat eginez.</li><li>▶ 7.3. Norbanakoek eta taldeek kaltearen ordaina jasotzeko duten eskubidea bermatzea.</li></ul>
<b>ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA.</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>▶ 8.1. EAEn emakumeen aurkako indarkeria jorratzen duten erakundeen arteko esku-hartze koordinatua sustatzea.</li></ul>